



‘Mundua Tolosan’ proiektuak punta- puntako abeslariak bilduko ditu

TOLOSA ▶ Mariza Fado apirilean eta Rodrigo Leao eta Ludovico Einaudi maiatzean ariko dira Leidorren ▶ 2



Syntorama taldekoa den Amaia Izpizua eta Tolosako Kultur zinegotzi Andoni Iturzaeta. E. EZEIZA

ANOETA ▶

Gipuzkoako Wu Shu Txapelketa izango da bihar, kiroldegian

Irabazten dutenak egunean bertan Espainiako Irekian lehiatuko dira ▶ 4

BERASTEGI ▶

Plazaolako XIV. mendeko burdinola baten egoera salatu dute

Xabier Cabezonek eta Leitzaränen aldeko hainbat taldek ▶ 7



Zonaldearen egoera. HITZA

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Euskal presoen «egoera salatzeko» elkarretaratzeak

Ijurko, Altuna, Aramendi eta Aranalde omenduko dituzte ▶ 6



jantzi
hitzaren
jertseak

HITZAren egoitzetan salgai



KULTURA ▶

Puntako abeslariak 'Mundua Tolosan' izeneko proiektuan

Mariza fado abeslaria izango da apirilean; maiatzean berriz Rodrigo Leao eta Ludovico Einaudi izango dira Leidorren

E. EZIEZA

Abian da jada *Mundua Tolosan* izeneko proiektua. Apirilaren 26an hasiko da kontzertu batekin, Maizarenarekin, hain zuzen ere. Bigarren emanaldia maiatzaren 11n izango da, Rodrigo Leao eta Ludovico Einaudi izango dira Tolosan. Bi kontzertuak Leidor aretoan izango dira 21:00etatik aurrera.

Tolosako Udalak eta Syntoramak proiektu hau aurrera eramateko akordio batera iritsi dira. Syntoramak, Donostian finkatua, 15 urte daramatza estatu mailan eta eskusiban, munduko musika eta musika berrietako artista handienak ekartzen. Andoni Iturzaeta Tolosako Kultur zinegotziak ohoretzat jo zuen atzo, «maila horretako» musikariak Tolosan izatearena. Gaineratu zuen ere, «horren ezaguna den Gipuzkoa hiria kontzeptua kulturaren ere egikaritzea ohore bat da». Bestalde, ziurtatu zuen, aurreantzean ere saiaturiko direla maila goreneko artistak ekartzen. Izan ere, udazkenerako beste data batzuk eta kontzertu batzuk begiratzeko ari dira antolatzaileak.

Aipatu bezala, errezitaldi guztiak Leidor antzokian izango dira. Sarreraren salmenta aldeaz aurretik egin ahal izango



Mariza fado abeslari portugaldarraren argazkia. HITZA

da telekuxta, Servikuxta eta www.kutxa.net-en bitartez. Baita antzokiko lehiatilan ere.

Puntako musikariak

Mariza egungo fadistarik internazionalena da. Mozanbiquen jaiotako portugaldar hau Por-

tugal eta bere kulturaren enbaxadore handia da. Concerto em Lisboa bere fado hirukotea eta hari-instrumentu laukotearen laguntzaz, 2006ko irailean hiri horretan zuzenean eskaintako errezitaldia aurkeztu du, CDan eta DVDan oraintxe aterata dena.

Rodrigo Leao talentu handiko komposatzailea da, ikuskera artistiko zabala duena. 80. hamarkadan hasi zen Madredeus eta Setama Legiao bezalako proiektuen aitzindari bezala, baina izan zuen arrakastaren ondoren, bakarkako proiektuari ekin zion. Ludovico Einaudi 80an hasi zen antzerkian, dantzan eta zinemarako doinuak sortzen. Italian gaur egun, komposatzaile garrantzitsuenetako bat da. Genero guztietako esploratzaile da, eta oso eroso sentitzen da doinu afrikarrek, emozio minimalista eta kolore garbiekin.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33ra.

Garbitzailea. Garbiketara, sukalde eta jangeletarako.

Telefono zenbakia: 943 44 48 66.

Gidariak. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuak deitu 943 44 48 66ra.



Salgai (Tolosa) lurramendi auzoan etxe zoragarria. 2 solairu. Ikuspegiak errekarra. **Salgai (Tolosa)** Santa Klaran pisu eraberritua. 62m². Sartzeko prest. Hormigoizkoa. Ikuspegiak Uzturrera. 270.455 euro. **Salgai (Añoeta)** Pisua. 75m². Terraza galanta eta eguzkitsua. 239.203 euro. **Salgai (Ezkarai)** Apartamentu berria herriaren erdian. 150.253 euro. **Salgai (Beasain)** 55m²-ko pisua. Guztiz eraberritua. 177.299 euro. 943 69 71 96 • 675 705 268 Korreo Kalea 50

GIZARTEA ▶

Enpresa ekimen sustatzaileen lehiaketa

Tolosaldea Garatzenek eta MCCk elkarlanean antolatutako Ekimen Berritzaileak sortzeko lehiaketan izena emateko azken eguna bihar izango da. Ekimen honen helburua izaera berritzailea edo teknologikoa duten enpresa ekimen berriak sustatzea da. Hala, proiektu irabazlea 24.000 euroekin sarituko dute. Proposatutako lanek 24 hilabete izango dituzte gehienez gauzatzeko.

AISIA ▶

Atsedena taldearen txangoa Altzora

Aurten ere, Santa Maria parrokiako Atsedena taldeak katekesiko bigarren mailatik aurrerako haurrentzat Aste Santuetarako irteera antolatu du. Txango hau Altzora izango da. Bertara joan nahi izanez gero izena emateko azken eguna gaurkoa izango da. Hau, parroki etxean egin daiteke, 20:00etatik 20:30era bitartean.

PISTA ▶

Pagola eta Olaberria mundialean

Mallorkan ari da jokatzeko pistako mundiala eta bertan dira Ainhua Pagola tolosarra eta Leire Olaberria, ikaztegietakoa. Atzo, aurkezpen proban 12 taldetatik 10. geratu ziren, baina antolatzaileek esan bezala, «ez du lehiaketarako balio; garrantzizko probak gaur hasiko dira».

GAZTERIA ▶

Gazte Martxara joateko autobusak

Urtero legez, Aste Santurako Gazte Mugimenduak topagunea antolatu du. Aurtengoan, Gazte Martxa burutuko da, Untzagatik Laudiora. Apirilaren 6an abiatuko dira, eta 8an amaitu. Tolosaldeko ere dei egingo dute hara joateko. Horretarako autobusak antolatu dituzte, eta sarrerak eta bonoak salgai daude tabernetan. Izen-ematea apirilaren 3a baino lehen egin beharko da. Sarrera eta bonoak berriz, Villabonako Iratzar eta Tolosako Raku tabernetan eskuratu ahal izango dira. Autobusa apirilaren 6an, goizeko 09:00etan irtengo da Triangulotik.

GIZARTEA ▶

Kazkabarraren afarirako txartelak salgai

Aurten Kazkabarra Taldearen 25. urteurrena da, hori dela eta, urte hauetan taldearekin harremana izan dute nentzat afaria antolatu dute apirilaren 21erako. Hala, txartelak eskuragai dira Ika-tza, Raku eta Mescalen.

AISIA ▶

Udalekueetan izena-ematea, apirilaren 4ra arte

Irekia da dagoeneko Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean antolatutako udalekueetan izena emateko epea. Hauen, 7 eta 13 urte bitarteko umeei zuzenduta daude eta jarduerak ludiko-hezigarrietan parte hartu ahal izango dute. Izen-ematea apirilaren 4a baino lehen Tolosako gazte informazioko bulegoan egin ahal izango dute interesatuak, eta baita internet bidez ere.

ERLIJIOA ▶

Pakearen aldeko otoitzaldi berezia izango da bihar

Bihar, Oñatitik Arantzazura izango den erromesaldira joan ezin duenarentzat meza berezia izango da Santa Maria parrokiari, 11:00etan. Herria, pakearen aldeko otoitzaldi bat egingo dute, hala, tolosar guztiak gonbidatzen dituzte elizkizunean parte hartzera.

KIROLAK ▶

Oargik irteera antolatu du Gredos mendilerroa

Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du Gredos mendilerroa. Irteera apirilaren 5an izango da, eta itzulera berriz 9an. Interesatuak informazio gehiago 637 83 03 80 telefono zenbakian eskuratu ahal izango dute.

MUSIKA ▶

Joseba Tapiak 'Real Politik' diskoa aurkeztuko du gaur

Leidor aretoan izango da kontzertua, 20:00etatik aurrera; laugarren lanak «gizartearen kritika umoretsua» egiten du

ERREDAKZIOA

Joseba Tapiak *Real Politik* bere lan berria aurkeztuko du gaur, Leidor aretoan 20:00etan. Sarrerak ohiko lekuetan eskuratu ahalako dira, hau da, www.kutxa.net, servikutxa edota telekutxan, 10 euroren truke.

Real Politik alemanierazko terminoak historia luzea dauka, baina gaur egun «posiblearen politika» esan ohi dena adierazten du: «Utopiak ahaztu eta egin litekeena bakarrik egitera ausartzen dira gure politikakoak. Baina... gauero plazan eguzki bete eskatzea, utopikoa al da? Eta botoaren ordez, botere apur bat eskatzea, hori ere utopikoa da? Ez, horiek ez dira utopiak, premia larriak baizik. Zergatik ez dituzte gure eskaera xumeak kontuan hartzen politikakoek? Politika ez da ezinezkoa dirudiena lortzea?». Piper puntua dakar diskoak, baina ez ahoa erretzeko, gezakeria urruntzeko baizik.

Bere bakarkako laugarren lan hau Zakurraren biolina izeneko zigilu berriarekin argitaratu du. Ilbilde luzea darama Joseba Tapiak, bai Tapia eta Leturia laukotearekin erromerietan, bai Hiru Truku taldearekin, eta baita bakarkako kontzertuetan ere. Horrek egin du



Joseba Tapiak. HITZA

errepertorio «aberats eta bariatu» baten jabe izatea, hala pieza zaharretan nola egungoetan. Izan ere, «tradizioak etengabeko bilakaeran dauka indarra: esateko eta musikatzeko modu berriak eragiten ditu munduak». Eta horretan txertatu du bere soinua eta ahotsa Joseba Tapiak, «gure gizarte honen kritika umoretsuan: *Irreal Politik* baten alde agian».

Joseba Tapiaren kantutegi honetan, beraz, gure tradizio zaharrek eta gure inguruan daukagun molde desberdineko kantuak ageri dira batetik;

bestetik, berak sortutako komposizioak entzun ahal ditugu, zorrotzak, ironikoak, alaiak. Doinu zahar eta berriak, bertakoak eta kanpokoak, jasoak eta sortuak.

Gaurko emanaldian, Joseba Tapiak ariko da soinu txikiarekin, eta ahotsa ere izango da; Arkaitz Miner mandolinarekin eta biolinarekin eta baita ahotsean ere; eta Jexux Aranburu pianoan eta soinu handian eta ahotsean. Ordu eta erdiz, 14 kanta berri abestuko dituzte, eta *Quebec* eta *Agur Intxorta Maite*-ko zenbait kantu.

KULTURA ▶



lazko Dantzari Txiki eguneko une bat. HITZA

Euskal kulturaz eta folkloreak bustita

Udaberrik antolatuta, 300 haur ariko dira dantzan bihar, Dantzari Txiki egunean

ERREDAKZIOA

Udaberri dantzari taldeak antolatuta, bihar izango da Dantzari Txiki eguna. Aurtengoan, indar berezia eman nahi izan diote ekitaldeari dantza taldearen 50. urteurrena delako, eta hainbat berrikuntza izango dira.

Iaz haurrek goizean dantza zuten eta arratsaldean jaialdi berezia izan zuten, aurtengoan arratsaldean izango da emanaldia. Honetaz gain haur kopurua handiagoa izango da, 7 dantza taldek hartuko baitute parte. Gasteizko Eguzkilore eta Adurtza dantza taldeak, Leitzako Aurrierak, Iruñeko San Fermin ikastolako taldeak, Portugaleteko Berriztasunak, Galdakako Andra Mari taldeak eta Udaberri dantza taldeak.

Denera 300 haur baino gehiago espero dira Tolosako kaleak animatzen eta egitaraua honakoa izango da: 11:30ean, kalejirak abituko dira bi taldetan Plaza Zaharretik. Talde bat Alde Zaharrean geratuko da eta bestea Triangulotik aurrera abiatuko da: 13:00etan, kalejira amaituko da Plaza Berrian; 17:00etan, emanaldi nagusia izango da Plaza Berrian, talde bakoitzak bere herriko dantzak eskainiko dituelarik; 18:30ean, emanaldiaren eta dantzari txikiaren amaiera.

Bestalde, Udaberri dantza taldearen 50. urteurrena dela eta, bihar erromeria ere egingo dute, 19:30etik aurrera triki-poteoa, hain zuzen, eta ondoren afaria. Gauen, berriz, Patxi Perez-ekin dantzaldia izango da Abastos plazan.

KULTURA ▶

Gorostidiren omenezko plaka jarri dute

Erredakzioa ▶ Jokin Gorostidiren alargunak, Itziar Aizpuruak *Jokin Gorostidi, autobiografia* liburua aurkeztu zuen atzo. «40 urtetan zehar bizi ditugun bion bizi puskek dira liburuan jaso ditudanak», azaldu du egileak. Liburuaren aurkezpenaren aurretik, Tontokalen elkartu ziren Jokin Gorostidiren omenezko plaka zabalatzeko —irudian— Pablo Gorostabel kaleko 14. zenbakian, hain zuzen, I. TERRADILLOS



Joseba Tapiak
Real Politik

TOLOSA

Martxoak
30
ostirala
20:00

LEIDOR

CRUCES BIRIBILTUA
943 90 12 00
www.kutxa.net

ANOETA ▶ KULTURA

Kultur Astearen balorazio «positiboa» egin dute

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak «oso balorazio positiboa» egin du martxoaren hasieran antolatutako Kultur Asteaz. Jendeak «oso erantzun ona» erakutsi zuen eta parte-hartze zabala egon zen antolatutako zituzten emanaldi guztietan. 25 ume inguruk entzun zituzten arreta handiz Pello Añorgaren ipuinak eta 55 bat ume ederki mugitu zuten gorputza aerobik eta batuka saioan Arrate Fernandez begiralearen gidaritzapean. Eriz Magoak 50 ume baino gehiago liluratu zituen bere abileziarekin, 70 ume inguru oreka lantzeko hainbat jokatu ziren ziren Zilimiska Zirkor Eskolan. Ateaga elkarteak prestatutako txokolatada goxo-goxoa dastatzeko aukera ere izan zuten plazara hurbildu zirenek, umeek eta ez hain umeek ere.

Bestade, 17 emakume beren gorputzarekiko harremana lantzeko aukera izan zuten Ainhoa Iturberen saioan, 25 bat emakume bularreko minbizia prebenitzeko aholkuak entzun zituzten interes handiz Katxalin elkartearen hitzaldian. Emakumeen Nazioarteko Eguneko afarian eta antzerkian 33 pertsona azaldu ziren —ekimen hauek Iruran burutu ziren, bi udalek antolatuta—. Udalak «eskerrak»



Zirkor eskolaren une bat. HITZA

eman nahi dizkie ekimen desberdinetan parte hartu zuten anoiatarrei, «beraiek eman baitote Kultur Asteari izan duen giro ederra eta bikaina».

Tailerretik ikastarora

Ainhoa Iturbek emandako tailerra ikastaro bihurtu da. *Gure gorputzarekin bat egiteko espazioa* izeneko ikastarora «barne lana garatzeko» aukera izango dute parte-hartzaileek. Erlaxazioak, harnasketa, hainbat dinamika egiteko aukera izango da. Apirilaren 19tik ekainaren 28ra bitarte izango da, ostegunetan 15:15etik 16:45era. 30 euro balioko ditu eta ohiko beharpenak izateko aukera dago. Ize-ematea apirilaren 13an amaituko da.

ANOETA ▶ KIROLAK

Gipuzkoako Wu Shu Txapelketa jokoan, bihar kiroldegian

10:30ean hasiko da lehiaketa eta bertako txapeldunek egun berean jokatu den Espainiako Irekian parte hartuko dute

IMANOL GARCIA

Anoetako Abraham Olano kiroldegia hartuko du bihar Gipuzkoako Wu Shu Txapelketa. Probintziako txapelketaz gain, Espainiako Irekia ere jokatu dute. Hain zuzen, Gipuzkoako txapeldunek Nafarroako, Castelloko, Valentziako, Valladolideko eta Kataluniako klubean aurka jokatu dute. Antolaketan lanetan Tolosako Indarra Gimnasioa ari da.

Txapelketa 10:30ean hasiko da eta lehenengo partaideak 15 urte beharokoak izango dira. Hauek ezin dute borrokarik egin eta, beraz, erakustaldiak egingo dituzte. Ondoren kadeteak (15-18 urte bitartean) eta seniorrak (19 urtetik gorra) lehiatuko dira. Guztira lau klubeko wushulariek har-

tuko dute parte: Tolosako Indarra (Tolosa), Club Borda (Lasarte), Club Lorea (Beasain) eta Club Ttatt (Eibar).

Modalitate ezberdinetan lehiatuko dira. Alde batetik, borroka modalitateak: Sanda eta Shaijian. Bestalde, kata edo forma modalitateak: tradizionala, tai chi, nanchuan, chanchuan, arma motza (ezpata) eta arma luzea (makila eta lantza). Horrez gain, txapelketarako balio ez duen beste modalitate batean ere lehiatuko dira: borroka prestatuak deritzona. Horretan, bi borrokalari beste bi borrokalariaren aurka, edo hiru hiruren aurka aritzen dira.

Txapelketak zein Irekiak egun osoa iraungo dute. Goizeko eta arratsaldeko saioa izango dira. Goizekoa 13:00ak alde-

ra amaituko da eta arratsaldeko saioa 16:00ak aldera hasiko da.

Etzi, erakustaldiak

Txapelketa bihar hasi eta amaituko bada ere, etzi erakustaldiak egingo dituzte. Klub guztiek beraien erakustaldia egingo dute, tartean munduko txapelketan domina lortutako Ramon Quina eibartarrak.

Tai chiak ere bere lekua izango du. Gipuzkoa osoko 40 taichizaleek forma egingo dute batera. Marisa Otxandiaga nafarrak —Espainiako Txapelketan domina lortutakoak— lehiaketetan egiten den tai chi erakustaldia egingo du. Hau guztia martxoaren jartzeko babesleak laguntza eskertzen dute antolatzaileek.

ZIZURKIL ▶

Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea irekita dago

Zizurkilgo Udalak jakinarazten du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko aurtengo zerga biltzen epea apirilaren 20an amaitzen dela, egun hori barne. Helbideratutako ordainagiriak apirilaren 20an pasatuko dira kontutik. Ordainketa lekuak: Kutxa, Euskadiko Kutxa, La Caixa, B.B.V.A., Banco Guipuzcoano, Banco Vasconia edo Banco Santander entitateetan.

VILLABONA ▶

Aukeraren ikuskizunerako sarrerak salgai

Aukeran dantza konpainiak *Bideak* ikuskizuna emango du Olaederra kiroldegian, etzi, 20:00etan. Sarrera erosi nahi dutenek, horretarako aukera izango dute gaur, Gurea aretoan 10:30etik 12:00etara eta 18:30etik 20:30era. Etzi, Gurean ere, 17:00etik 18:30era, eta Olaederra kiroldegian 18:30etik aurrera. Sarrerak sei euro balio ditu.

VILLABONA ▶

Udaberri Txapelketako finala, gaur

Behar-Zana elkarteak Liza-sok eta Iraetak Oartzungo Madalensoro pilotalekuan Udaberri txapelketako finala jokatu dute eskuz binaka senior mailan. 20:15ean hasiko da partida eta aurkariak Elgoibarko Lagunak taldeko Atxotegi eta Loiola izango dira. Partida gogorra aurreikusten da, ligaxkan 22-21 galdu baituzten Behar-Zana elkarteok.

haur kantari jaialdia
2007

Martxoaren 31n,
Larunbata, 16:30ean
TOLOSAKO Leidor Antzokian

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa_redpeugeot.com

Expert berria

TOLOSA ▶ MUSIKA

Bonberenean eskualdeko bi talde, gaur

Homo Demens pop-rockarekin eta Agoraphobia metalarekin izango dira

NEREA URBIZU

Gaur, Bonberenean 22:30etik aurrera Homo Demens eta Agoraphobia taldeen saioak izango dira.

Homo Demens tolosarreke grabatzen ari diren maketaren aurkezpena egingo dute eta beste kanta gutxi batzuen bertsiok ere eskainiko dituzte. Pop britainiarraren kutsua, 80. hamarkadako erritmoetarako joera eta pop-rock estiloetara hurbiltzen diren doinuak jorratzen dituzte 4 gazte hauek. Pia-

noak protagonismoa hartzen du laukotean, eta harekin, multilaren ahotsa, bateria, baxua eta gitarra nahasten dira.

Bonbereneako kontzertu hau Demens hauen lehen saioa izango da, eta haiek dioten moduan, «nolabaiteko ardua edo errespetua ematen digu, gauzak serioago hartzeko arrazoia da hemen jotzea».

Tolosaldeko Agoraphobia taldeak metala jorratzen du, gogorragoa da egiten dutena. Bi taldeak ikusteko aukera, beraz, gaur, Bonberenean.

ALEGIA ▶

Eguzki, galdeketa bozkatzearen alde

Eguzki taldeak etzi Alegian egingo den AHTri buruzko galdeketa jendeak parte hartzea animatu nahi izan du, horretarako, bi arrazoi nagusi emanez: «AHT Euskal Herrian proposatu den ingurugiroari egindako mehatxurik handiena delako» eta bigarren, izaera demokratikoa duen arrazoia: «AHT «ezkutuan egin den proiektua delako. Are gehiago: herritarrek ez dakite ez ibilbideaz, hotsa, nahiz trenaren praktikotasunaz». Zehazki, «ezezkoa» erantzuteko animatu nahi diete herritarrei.



Galdeketa prestatutako kartelak herrian zehar daude. HITZA

AMEZKETA ▶

I. Miztoa lehiaketa eta musika, bihar

I. Miztoa lehiaketa eta kontzertuak antolatuko dituzte biharko Amezketako frontoian, 19:00etan, Gazte Taldekoek. Herriari buruzko jakinduria ikusteko eta barre egiten ikasteko lehiaketa da. Izena tabernetan eman behar da. Gero kontzertuak daude.

ALBIZTUR ▶

Alkatetzarako eta zinegotzi izateko izen-ematea bihar

Bihar herri batzar bat izango da 21:00etan Albizturko udaltxean. Honetan, maiatzaren 17ko Udal hauteskundetako zerrenda osatzeko alkatetza eta zinegotzi kargutarako izenen proposamenak jasoko dituzte.

ALEGIA ▶

Intxurre futbol taldeko helduenek etxean dituzte

Intxurreko jubenilek Idiazabal jokatuko dute partida 16:30ean, bihar. Kadeteek Irunen dute norgehiagoka 12:00etan, bihar ere. Lurraldekoek Gaztearen kontra dute 16:00etan, Alegian, bihar. Azkenik, senior mailako neskek gaur dute partida 21:00etan. Zestoaren aurka, Alegian bertan.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak moztzeko eskubidea du

AHTri ez!

EAJ, EA, EB, PSOE, PP, UPN, UMP, PSF politikarien eskuetan dauden administrazioen asmoa, Euskal Herrian 440 kilometro inguru AHT eraikitzeko proiektua dute datozen urteotan eta herritarren arazoak, hau da; ingurumenaren, nekazaritzaren, garraioaren, pobrezia, prekarizazioaren, etxebizitzaren... inguruko arazoak konpondu beharrean handitu egingo dituzte. Banku handien, multinazionalen, energia, zementu-fabrika, eraikuntza eta arloko enpresariak, ingeniari-tza eta proiektu kabineteak, herri-lanetako makinak alokatzen dituztenen interesak administratzeko eta defendatzeko politika egiten dute.

AHTren kalteak asko dira. Eragin ekologikoa izugarria

izango litzateke. Besteak beste, Eusko Autonomi Erkidegoan Euskal Y-ak 600 lur hektarea baino gehiago okupatuko litzateke, gehi tuneletatik ateratako hondakinek 518 hektarea zabortege bihurtuko litzatekeenak; barrera efektu eta zarata handia sortuko luke; energia kontsumoa biderkatuko luke; zentral termikoak ala nuklearrak eta harrobi berriak beharko lirarteke... Eta zertarako? AHTk trafikoaren arazoak ez ditu konponduko, modu esanguratsuan errepedeetatik ez baititu murriztuko autoak eta kamioiak. Hori bai: hiriburuaren arteko lotura azkarra ahalbidetuko luke, herriak eta eskualdeak baztertuz. Euskal Herrian inoiz egin den azpiegiturarik garestiena da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan AHT eraikitzeko 6.000 milioi euro inguru behar-

ko lirarteke: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak azken 24 urteotan izan duen aurrekontua, alegia. AHTn egingo den inbertsio ahaleginak, gutxituko du gizarte gastuetara bideratuko den diru kopurua, eta hala, gizarte desberdintasunak areagotuko dira.

Bestalde, instituzioetatik herritarrek ez dute informaziorik jaso eta are gutxiago izan dute erabakitzeko eskubidea. Horregatik, AHT inposizioaren sinonimo da.

Zertaz ari gara, ordea? AHT proiektuak oso argi erakusten du estatuaren klaseko izaera burgesa. Klase kapitalistak agintzen du merkatu globalizazioa. Kapitalaren interesak gizaritza arlo guztietan gailentzen dira eta hauen ordezkariak diren politikoei gobernatzeko dute. Gutxiengo-

an den klase parasito batek langile klase zabalaren gaintik agintzen du, eta bere lanetik aberasteaz gain hauen bizi baldintzak, lanpostuak, etxebizitza, osasuna, ingurugiroa... merkatuaren eta interes pribatuaren menpera jartzen ditu. Beharrezkoa da borroka honekin auzitan jartzea egungo jendarte eredu, ekonomia kapitalista eta bere 'demokrazia'.

AHTri masek erantzun sendo bat ematea garrantzitsua da. Gaurko egunean AHT bada, bihar beste proiektu faraoniko bat, pribatizazio gehiago edo deslokalizazioak izango dira. Ezinbestekoa da kapitalistak expropiatzea eta ekonomia nazionalizatzea, herritarren beharren arabera planifikatzeko. Guztientzat bizi baldintza duinak bermatzea, zapalkuntza guztiekin amaitzea, ingurume-

naren mugak errespetatzea... Posible da produkzioa, aberastasuna, teknologia eta zientzia langile klasearen eskuetan jartzeko badira, hau da; gizarte sozialista bat eraikitzen bada.

AHTren obrak Arabako Luku herrian hasi diren une honetan, zenbait herritan bultzatzen ari diren AHTren inguruko herri galdeketa azpiegitura honen aurkako iritzia erakusten dute herritarrek. Garrantzi handikoa da borroka honetan ahal den herritar gehienek parte hartzea, galdeketa nahiz bestelako ekitalditan. Guztia, etzi, Alegian, AHTri buruz egingo den herri galdeketa AHTri Ez! esatera animatu nahi ditugu alegiarrak.

MANU ODRIOLA ETA IKER
OTERMIN ▶ EUSKAL HERRIA SOZIALISTA
ALDIZKARIKO KIDEAK

hitza Harpidedunen txokoa

Gaur Leidor aretoan, 20:00etan **Joseba Tapiak** emango duen kontzerturako HITZAK bere harpidedun guztien artean zozketatutako **sarreraren irabazleak:**

- ▶ Mila Eizagirre (Tolosa)
- ▶ Asun Bengoetxea (Ibarra)
- ▶ Mari Jose Izagirre (Alegia)
- ▶ Nekane Goikoetxea (Amezketak)
- ▶ Rosi Urkola (Asteasu)

HITZAK bere harpidedunen artean **eutsi!** filma ikusteko zozketatutako **sarreraren irabazleak:**

- ▶ Aloña Barandiaran (Irura)
- ▶ Mari Jose Mendizabal (Villabona)

IBARRA ▶

Gurasoei zuzenduriko tailerra

Apirilak 19 eta 26ean lehenik eta maiatzaren 3, 10, 15 eta 24ean, Ibarrako Udalak, Uzturne ikastolaren lankidetzarekin, gurasoei zuzenduriko tailerra antolatu du. «Gurasoei zuzendua egongo da eta arazoak konpontzeko beraien funtzioak» omen direnak ezagutzera, eta ohiko arazoengatik gogoeta egitea du helburu Geuz taldeak zuzenduko duen ekitaldiak.

BELAUNTZA ▶

Gaur Haur Txokoaren inaugurazioa

Kultur Etxean haurren txoko berria inauguratu dute gaur 18:30ean. Haurren adinaren arabera liburua aurkituko dira bertan, euren altuera kontutan hartuta kokatuak gainera. Era berean, «jolastu eta eskolako lanak bertan egin ditzaten egokia izango da» Iñaki Otamendi kultur dinamizatzaileraren esanetan. Ordenagailu bat ere egongo da Interneten aritzeko aukera emango duena edo idazlanak egiteko balio duena. Gurasok ere beraien txokoa izango dute, egunkaria edo aldizkariak irakurtzeko adibidez. Haur Txokoaren lehen egunean, eskulanak egingo dituzte hasieran, gero merienda txiki batekin amaituko dute.

AIZKORA ▶

Alkizalete eta Mujika 'Urrezko Aizkoran'

Jexu Mari Mujika ibartarrak Elite Mailako lehia jokatu du igandean Juanjo Lopez Azpilikuetauren aurka. Honen herrian jokatu da lehia, Lezaunen eta zaila izango du aurrera egitea ibartarrak. Mujikak lehen kanporaketan Zubiaga Arabako txapelduna utzi zuen kanpoan eta sasoi dagoela erakutsi zuen, nahiz eta zutikako egurrean denbora galdu. Bere aldetik Jokin Alkizalete asteasuarak 18 urte azpiko mailan, larunbatean lehiatu da Zegamako frontoan, 22:30 inguruan hasiko den jaialdian. Jon Rodrigezen aurka ariko da eta errepeska lehia izango da, biek lehen kanporaketan kale egin baitzuten.

GAZTELU ▶ NATURA



Gazteluko harrobiaren betelan prestaketak aurrera doaz eta sei hilabetetan amaitzea aurreikusten da. A.I.

Harrobian ingurunea berreskuratzeko lanak hasi dituzte

Lehenik ingurunea egokitzen ari dira, ondoren betelanak egingo dituen lurra ekarriko dute kamioetan

ASIER IMAZ

Gazteluko harrobiaren ingurunea berreskuratzeko lanak hilaren hasieran hasi zituzten. Orain dagoen zuloa lurrez estaliko dute eta gainean natura berreskuratzeko egin ohi diren txertaketak egingo dituzte, hau da, «gainean zuhaitzak joango dira amaieran». Lan honetarako Amenabar enpresarekin

lotu zuen akordioa Gazteluko Udalak. Hau ekarriko dute lurra, «beti ere Udalaren zerbitzura dagoen geologo batek kontrolatuko ditu iristen diren kamioi guztiak eta garraiatzen duten materiala». Helburua «edozer gauza ez sartzea eta sartzeko dena kontrolaturik egotea da».

Lanekin hasteko lehenik harrobirainoko bidea egokitu zuten.

Ondoren harririk handienak atera eta harkaitzetik jais-ten den ur guztia errekarazuzentzeko kanala. «Ura bideratzeko iragazki moduko bat» jarri dute kanalean barrena. Ur hau alboan dagoen errekarazuzendua dago. Kamioien gurrupilak garbitzeko makina jarri bezain laster hasiko dira lurra ekartzen ingurunea berreskuratzeko helburuarekin.

POLITIKA ▶

Azken ostiralean ohiko elkarretaratzeaz gain omenaldiak ere egingo dira

A. IMAZ

Etberatek deituta, bi eskualdeetan elkarretaratzeak eta enkartelada isilak egingo dituzte gaur. «Hilabete honetan, orohar espesxeetan euskal presoek bizi dituzten baldintza kaskarrak» salatuko direla jakinarazi dute deialdia luzatu dutenek.

19:30ean Tolosan, Ibarren, Alegian, Amezketan eta Anoetan egingo dituzte elkarretaratzeak. 20:00etan berriz, Lizar-

tza, Ikaztegieta, Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Leitzan egingo dituzte.

Omenaldia eta salaketa

Ibarra eta Villabonan deialdi berezia egin dute. Ibarren, espesxeetan 5 eta 2 urte bete berriak dituzten Eider Ijurko, Ekaitz Aramendi, Maite Aranalde eta Haimar Altuna omenduko dituzte. Herriko sarreran elkartuko dira 19:30ean eta ondoren giza katean plazara

joango dira. Bertan dantzari-ekin omenaldi ekitaldia egingo dute. Honetaz gain, Ion Mintegiaren urtebetetzea denez apirilak 5ean, herritarrei deialdia egin zaie argazkia ateratzeko bertara ager daitezten.

Villabonan Emilio Salaberriaren egoera gogoratuko dute ohiko enkartelada isilean. Preso politiko billabonatarrek igandean bete zituen 5 urte espesxean atxilotu zutenetik. Data hau kontutan izanik, gaur bere egoera salatuko dute.

IBARRA ▶

Bihar 'Arri'ri omenaldia egingo diote motozaleek

Langostino Moto Kultur elkarteak egun guztirako ekitaldiak antolatu ditu

A. IMAZ

Bihar Arri motorzalearen omenez eta errepidean hildako guztiengatik, Langostino Moto Kultur elkarteak rock festa antolatu du Radikal Bikes aretoan. 16:00etan motorrekin itzulia egingo dute Cheyennetik irtenda. 21:00etan Usalbalgo sagardotegian afalduko dute. 00:00etan kontzertua izango da Pathetics taldearekin.

Informazio gehiago nahi duenak, «Radikal Bikes aretoan edo 600 015 201ra deitu eta Javi edo Lidiagarengatik galde dezake».

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720
▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**
▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ San Esteban: 006800
▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637
▶ Asunzion Klinikoa 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536
▶ Gurutze Gorria: 674888
▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitzaran autob.: 948 221015
▶ Taxia: 670420
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
▶ Tolargi: 650016
▶ Lurramendi egotza: 670325
▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

Kultur ondarearen geroa

Berastegin kokatuta dagoen XIV. mendeko burdinola baten egoera salatu dute Plazaolan aditua den Xabier Cabezonek eta Leitzararen aldeko hainbat taldek



Xabier Cabezon, Berastegiko XIV. mendeko burdinolaren ondoan. HITZA

NAIARA GARZIA

Euskal Herriarentzat burdinola oso industria garrantzitsua izan da. Gaur egun, industria horren garrantzia aldatu bada ere, eta burdinolak ia iraganeko oroimen batean bilakatu badira ere, ez dira gutxi museo gisa Euskal Herrian zehar zaharberritu dituztenak.

Euskal Herriko herri asko izan ziren industria honetatik bizitu zirenak. Plazaola tren bera ere honen lekuko izan zen, eta Donostia eta Iruñea artean kokatuta zeuden hainbat burdinoletako materialak garraiatu zituen urte askotan.

Xabier Cabezon Leitzararen eta Plazaolan aditua da. «Egun kari batean Luis Pedro Peñaren

artikulu bat irakurri eta tren honen historiataz eta Leitzararen bailarataz maitemindu nintzen». Orduz geroztik honen inguruko informazio asko bildu du eta epe luzera bere helburua liburu bat argitaratzea bada ere, Leitzararen inguruko webgune bat egin du: www.leizaran.net/index.html. Xabier Cabezonek eta Leitzararen aldeko beste hainbat taldek Berastegin dagoen XIV. mendeko burdinola baten egoera salatu dute. «Nagusiak pribatuak izan arren, ondare arkeologiko bezala izendatuta dago. Gutxienez seinaleren bat jartzea, lehenengo urrats berraiatu zireneko. Azken batean hau merkea da, eta gure ondare kulturala gero eta gehiago ezagutu orduan eta babestua-

go egongo da», dio Cabezonek. Aranzadi elkartetik ere burdinola hau zaharberritzeko intentsia dagoela azpimarratu du.

Zailtasunak

Manu Segovia Andoaingo Udaleko Enplegu eta Mendialdeko Garapen Teknikaria da. «Duela 3 urte Villabona, Andoain, Elduain eta Berastegiren artean diru laguntza jarri eta burdinola hau garbitu egin zuten. Kutzak eta Aranzadi elkarrekin udan egiten dituzten kanpamentu antzekoetan parte hartzen duten gazteak aritu ziren lan horretan. Proiektu honen laguntzarekin Berastegiko burdinola horretaz gain Bizkotx bezala ezagutzen dena ere garbitu zuten». Halere, proiektu

tu honekin jarraitzea ez dela erraza azaldu du Segoviak. «Andoaindik gure asmoa jarraitzea zen, Leitzararen ondare historiko dezente baitago. Horretarako garbitu eta gero burdinola hauek mantendu nahi genituen, baina Berastegi eta Elduaingo udalek, herri txikiagoak izatean, ez zuten dirua horretan inbertitu nahi, beste lehentasun batzuk baitituzte eta elkarlana bertan behera gelditu zen. Udaletxe guztiatik borondatea balego, gu proiektuarekin jarraitzeko prest geundeke».

Elduaingo Udalaren ustez, berriz, «elkarrekin lanean hasi ginenean Andoainek nahi zuen protagonismo guztia, eta hori guri ez zaigu komeni. Berastegiri eta Elduaini Plazaolaren %9 inguru dagokigu, eta arrazoi horrengatik harremanak eten egin ziren». Ez da ahaztu behar Berastegin, esaterako, 20 burdinola egon zirela garai batean.

Leitzar, altxor bat

Nafarroako zatia natur bidea da, eta Plazaola Partzuergoko kudeatzaile den Yolanda De Carlosek azaldu duen bezala, «honek autoak ezin daitezkeela sartu esan nahi du. Baimen berezi bat dutenak sar daitezke soilik». Gipuzkoakoan, berriz, Andoaingo 5 kilometrotan izan ezik (zati hau ere natur bidea izango litzateke) egurra ateratzeko lanean ibiltzen dira kamioiak, eta asteburuetan, berriz, autoak sartzen dira eta honek guztiak bere mantentze erabakia ere baldintzatu egiten du. «Leitzaranez ondare asko dauka, altxor bat da, baina egurrarekiko dagoen interesak hau guztia ezkutatu egiten du», dio Andoaingo udaletxetik Manu Segoviak.

LEITZA ▶

'El niño'-rekin amaituko dute zine denboraldia

Asteburu honetan eskainiko duten filma oraingo azkeneko izango dela azaldu dute zineko arduradunek. Honela, gaur eta etzi eskainiko duten *El niño* filma izanen da udazkenera arte herriko zinemari ikusi ahaliko den azkeneko. Aste Santua baino lehen amaitzen da urtero Leitzako zine denboraldia, eguraldi onarekin jende gutxi joaten baita zinemara. Gaur 22:30ean eskainiko dute filma, eta igandean, 19:30ean.

LEITZA ▶

Penitentzi ospakizuna bihar, elizan

Bihar penitentzi ospakizuna egingo dute Leitzako parrokiak 19:00etan. Aste Santuaren hiltzearekin, aste honetan zehar hainbat hitzaldi eskaini ditu Patxi Izko herriko apaizak, eta hurrengo aste osoan zehar egingo diren ospakizunen barruan, larunbaterako penitentzia izango da lehenengoa.

LEITZA ▶

Baketik-eko hitzaldia izango da, astelehenean

Baketik-eko Jonan Fernandezek astelehenean hitzaldia eskainiko du bakeari buruz. Berez martxoaren 19an eman behar zuen hitzaldia, baina eguraldi txarra zela eta azkeneko momentuan hitzaldia bertan behera uztea erabaki zuten. Fernandezek emango duen hitzaldia Eliz Ganbaran izanen da eta Leitzako Elizak Aste Santurako antolatutako hainbat ospakizunen barruan sartzen da.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. AHTri buruzko eztabaida egingo dute 20:00etan Kultur Etxean, Urdaxpal Alberdirekin (AHTren aurkako asanbladaren kidea) eta Roberto Bermejorekin (Ekonomian doktorea, EHUko irakaslea eta garraioan aditua).

Aitzo. Kontzertua eskainiko dute Aitzoko Lizarbe etxean Loatzo musika eskolako ikasleek, Aste Santua dela-eta.

Amezketeta. Umeen eguna: Zumadi eskolako umeei marrazkiak eta idazlanak egingo dituzte eta lan guztiekin erakusketa; arratsaldean Anjel Alkainek emanaldia eskainiko du, eta ondoren merienda banatuko zaie.

Tolosa. Joseba Tapia trikitilariaren kontzertua Leidor aretoan 20:00etan. *Real politik* azken diskoaren kantak eskainiko ditu, besteak beste, bere taldearekin.

Tolosa. Agoraphobia eta Homo Demens musika talde tolosarren kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Tolosa. Txox antzerki taldearen *Beteluko balnearioko mirakulua* antzezlana, 10:00etan Aitzol euskaltegian, hau da; musika eskolako areto nagusian.

Tolosa. Iturrija jubilatutako elkarrekin Andorrara irteera antolatuko du maiatzaren 7tik 10era. Prezioa: 170 euro (ez bazkideek 175). Informazioa eta izen-ematea elkartean (943 698330).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.
Tolosa. Ollarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Asteko onena*.
21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Txikienek artea landatu zuten. Guraso elkarrekin ere haiena landatzeko aukera izan zuten, eta ia gehienak ausartu ziren pala hartzen. N. URBIZU

Ikasleen eta gurasoen kontua

AMEZKETA ▶ San Martin parkean zazpi zuhaitz berri landatu zituzten Zuhaitzaren Egunean; tartean, guraso elkarrekin akazia eder bat



Klase bakoitzak zuhaitz bat landatu zuen. Bosgarren mailakoek zumar negartia landatu zuten. N. URBIZU

NEREA URBIZU

San Martin parkean Amezketa ikasleek eta guraso elkarrekin Zuhaitz Eguna egin zuten atzo. Julian Sagastume alkatea, urtero bezala, han izan zen, ikasleekin lanean.

Aurten, ikasturte bakoitzeko haur eta gaztetxoek zuhaitz bana landatu dute: artea, udareondoa, haranondoa, gereziandoa, zumar negartia, urkia eta gurasoek akazia, txikienei hasita, hurrenez hurren. Ikasle bakoitzak gutxienez behin bete zuten pala pisutsua eta zuloan lurra bota zuten.

Haien aldamenen landaturiko zuhaitzari buruzko informazioa jarri zuten, iaz egin bezala. Aurreko urtean landaturiko zuhaitzak ere begiratu zituzten, eta gogoratu ere, gogoratu zituzten.

Eguraldi ez oso atsegina egin bazuen ere, eskolara oinez jaitsi, eta bertako frontoitoan hamaiketako bat egin zuten.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Eneko Artoia Amundarain (Tolosa). Gaur 7. urte. Muxu handi bat denon partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...